EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INPRIMATEGIRAKO INPRIMATZE DIGITALEKO EKIPO BAT ERRENTAN HARTZEKO ETA MANTENTZEKO (X24004)

1. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen xedea honako hau izango da: Gipuzkoako Foru Aldundiko inprimategirako inprimatze digitaleko ekipo baten hornidura eta mantentzea, kontsumigarrien hornidura barne, errentamenduaren modalitatean.

Urtean 10.000 inprimatze aurreikusten dira zuri-beltzean, eta 60.000 koloretan, SRA4-n; SR3-n, berriz, 40.000 inprimatze zuri–beltzean, eta 260.000 koloretan SRA3-n.

2. KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA

Kontratuaren iraupena 5 urtekoa izango da, makina jasotzen denetik kontatzen hasita. Bost urte horietan, errentamenduari dagokion hileko kuota gehi mantentze zerbitzuari –kontsumigarrien hornidura barne– dagokion inprimatze prezioa ordainduko zaio enpresa hornitzaileari. Bost urteko errentamendu-aldia amaitutakoan, Aldundiak makina erabiltzeko eskubidea izango du balio-bizitza amaitu arte, errentamendu-kostu gehigarririk gabe.

Kontratazio honetan ez da prezioen berrikuspenik aurreikusten; hori dela eta, eskainitako prezioak ezin izango dira aldatu kontratua indarrean dagoen bitartean.

3. EKIPOAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

3.1 Ezaugarri orokorrak

Zehaztapen horek gutxieneko baldintza gisa ezartzen dira. Eskaintza aurkeztearekin batera, ezaugarri horiek guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da. Zehaztapen horiek ez betetzeak edo bat ez etortzeak aurkeztutako eskaintza automatikoki baztertzea ekarriko du.

- Zuri beltzeko eta koloretako inprimatze digitaleko ekipoa.
- Etherneteko sare txartela: 10/100/1000
- TCP/IP protokoloa, gutxienez
- Pantaila finkoa
- Zooma
- Abio segurua, ekipoan firmwarea eta baimendutako aplikazioak bakarrik instalatu ahal izango direla bermatzeko
- Paper birziklatuaren erabiltera onartuko du.
- Kontrolatzailearen ezaugarriak:

- Fiery
- Espektofotometroa
- Windows eta Mac-erako driverrak
- Ezarpenak

- Lineako akabera unitatea.

Ekipoa berria izango da, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera merkaturatutakoa (fabrikatzailearen agiri bidez egiaztatuko da alderdi hori); beraz, ez da onartuko biregokitutako edo birmanufakturatutako ekipamendurik.

LWAd zarata maila EN ISO 7779:2001 arauaren arabera kalkulatuko da, eta ISO 9296:1988 arauaren arabera adieraziko da, osagarririk gabeko makinari dagokionez.

Isuriak *Angel Azul* ekoetiketan zehaztutako prozeduraren arabera zifratuko dira.

Ekipoak Energy Star egiaztagiria izango du.

3.2 Ezaugarri bereziak

Jarraian adierazten diren ezaugarriak gutxienekotzat hartzen dira. Zenbakizko erreferentziak erreferentzia baliotzat hartu behar dira, hau da balio horiek gutxi gorabeherako gisa interpretatu behar dira. Adierazitako zifrekiko alde txiki baten barruan (± % 5) dauden eskaintzen hurbiltasuna kontuan hartuko da, baina gutxieneko alde horrek ez du automatikoki ekarriko eskaintza baztertzea.

Eskaintzak baloratzeko, proposatutako zifrak zorrotz betetzeaz gain, hurbiltasuna eta baimendutako tartearen barruan egokitzeko gaitasuna (± % 5) ere kontuan hartuko dira.

- Koloretako inprimatze abiadura: 80 ppm
- Bereizmena: 2.400 – 2.400 ppp
- Papera hartzeko gaitasuna, xurgatze edo marruskadura bakoitzeko: Elikatzailea: 3.000 orri, 330 x 488 mm
- Goiko erretilua, tamaina handiko orrietarako: 330 x 1000 mm
- Paperaren irteera edukiera: 3.000 orri.
- Paperaren gramajea: 55 - 350 gr/m2
- Koadernoen unitatea: albo karratuarekin tolestua eta grapatua. Gutxienez 30 orri (120 orrialde)

4. ALDAEREN ESKAINTZA

Enpresa lizitatzaileek bigarren eskaintza edo aldaera bat aurkeztu ahal izango dute, koadernoen unitatea lineaz kanpo duena. Aukera hori positibotzat joko da, beste ekipo batzuetan inprimatutako lanak manipulatzeko erabili ahal izango delako.

5. ZERBITZUAK

Enpresa adjudikaziodunaren gutxieneko betebeharrak hauek izango dira:

- Instalatutako ekipoa mantentzea, kapitulu honetan ezarritakoaren arabera.
- Hornitutako ekipoa instalatzea eta driverrak instalatzea adierazten diren ordenagailuetan.
- Ekipoa erretiratzea, haren bizitza amaitutzat jotzen denean (konponezina delako edo kontratua amaitu delako), baimendutako kudeatzaile baten bitartez.
- Ekipoak sortutako hondakinak erretiratzea (tonerra, kartutxoak, etab.), ezarritako prozedura baten arabera eta baimendutako hondakin kudeatzaile baten bidez.
- Kontagailuak irakurtzea, aurrez aurre edo urrutitik, sistemaren segurtasuna eta entitatearen datuen osotasuna bermatzen badira.
- Inprimatze bolumenen estatistikak edo zerrenda zehatzak egitea, entitate bakoitzak eskatuta.
- Zerbitzu tekniko komertziala.

Mantentze lana arrisku orotarikoa izango da, eta kontsumigarri guztiak barne hartuko ditu, papera izan ezik. Mantentze lanetatik at geratuko dira erabilera txarraren edo istripuen ondoriozko matxurak (uholdeak, gaintentsioak, suteak edo antzekoak).

Kontratuak irauten duen bitartean gertatzen diren matxura edo funtzionamendu edo kalitate akats guztiak konpontzean datza. Lizitatzaileek ekipoaren balio-bizitza hobetu ahal izango dute, gutxienez 5 urtekoa izango da.

Enpresa esleipendunak ekipoaren balio-bizitza adierazi beharko du eskaintzan. Gutxienez 5 urtekoa izango da, hau da, makinak baldintza normaletan ondo funtzionatzea eta kontsumigarriak eta ordezko piezak hornitzea bermatuko duen denbora-tartea. Alderdi hori "ekipoen balio-bizitza" irizpidearen barruan baloratuko da.

Enpresa esleipendunak ekipoaren balio-bizitza adierazi beharko du eskaintzan. Gutxienez 5 urtekoa izango da, hau da, makinak baldintza normaletan ondo funtzionatzea eta kontsumigarriak eta ordezko piezak hornitzea bermatuko duen denbora-tartea. Alderdi hori "ekipoen balio-bizitza" irizpidearen barruan baloratuko da.

Aurrez aurre erantzuteko gehieneko denbora 4 lanordu izango da, eta ebazteko denbora, berriz, lanegun bat.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da tonerra eta gainerako hondakinak biltzeaz ere, eta, horretarako, enpresak berak edo azpikontratatzen duen enpresak behar bezala egiaztatua egon beharko du.

Administrazio klausula partikularren agiriaren ezaugarri taulan adierazitakoaren arabera, enpresa adjudikaziodunak laguntza teknikoko zerbitzua izan beharko du kontratuan sartutako ekipoen mantentze lanetarako, hartara zerbitzua behar bezain azkarra izango dela bermatzeko; alderdi hori eskaintzan baloratuko direnetako bat izango da. Gutxieneko baldintza gisa, LTZ dagoen lekutik Gipuzkoako Foru Aldundiko Inprimategira joateko denbora gehienez ordu eta erdi izango da, Google Mapsen arabera neurtuta. Zerbitzu horrek mantentze lanetako bi teknikari izan behar ditu, inprimatze ekipoen mantentze lanetan 5 urteko esperientzia dutenak, gutxienez, eta fabrikatzaileak ziurtatutakoak.

Mantentze lanen prezioa inprimatze unitate bakoitzeko ezarriko da, paperaren tamainaren (SRA4 eta SRA3) eta inprimatze motaren arabera zuri-beltzean edo koloretan.

Mantentze lanen prezioa kontratuak irauten duen bost urteetan mantenduko da, administrazio klausulen karatulan adierazitakoaren arabera.

Azkenik, enpresa adjudikaziodunak arreta tekniko komertziala ere emango du kontratuarekin zerikusia duen guztian: prestakuntza, berritze plana, fakturazioa, etab.

6. PRESTAKUNTZA

Kontratuak barne hartuko du Gipuzkoako Foru Aldundiko Inprimategiko operadoreen prestakuntza, ekipoaren eta haren softwarea erabiltzeari dagokionez.

7. INSTALAZIOA

Kontratuak barne hartuko du makina digital berria egungo makina dagoen leku berean instalatzea, eta makina zaharra garbigune batera erretiratzea.

Donostia, 2024ko martxoaren 5a.

INPRIMATEGIKO BURUA

Sin.: Asier Marin Casanova

ZERBITZU OROKORRETAKO BURUA

Sin.: Marta Blanco Suárez